

Herriaren koplak

1
Orain abiatzen naiz
paratzen kantuak,
kobardiatu dute
kristino tontuak;
karlistak *a cuchillo*,
han ziran kontuak;
milagroa egin du
Gurutze Santuak.

2
Seko gelditu dira
zortzi ehun da piko,
zuzen ibili balira
etzituzten hilko;
etxerik erre gabe
ez dutela utziko,
orain pagatuko dute
larrutikan pijo

3
O'Donell jeneralak
zuela agintzen,
panparroia zebilen
etxeak erretzen;
solamente jaun hori
ez da gaitz izutzen,
kapela galdurikan
Hernanin sartu zen.

4
Kapela galdu zuen,
gañera zaldia,
beste batena artuta
itzuri abia;
gezurrik gabetanik
esain det egia:
traidorea da baña
kobarde andia.

5
Merezi duen gisan
ari naiz ondratzen,
alegiña badabill
bazterrak ondatzen;
mundu guziak daki
gauza ori nola zen,
orren gerra guzia
etxeak erretzen.

6
Orrenbeste bat pena
nekazariari
eman gabe zebillen
Dn. Gaspar Jauregi;
gogor abiatu da
O'Donell jaun ori,
bestarik ezin du ta
jende komunari.

7
Zer aski duen ongi
ez daki lan ori,
len amar kontrario,
orain dauzka amabi;
jendeak ikasi du
tiratzen armari,
ez geiegi fiatu
abarkadunari.

8
Enemigorik ez den
lekuan baliente,
mundu guztian gaizki
juzkatuko dute;
gero nonbait karlistak
kontra egin dute,
kanpamenduak laja
etxearen truke.

9
Hainbeste kanpamentu
asko zabalduak
uste hortan etziran
haraino biralduak;
haiek guztiak ere
dituzte galduak,
zer zirala uste zuten
probintzianuak?

10
Laguntzaile ez txarra
gainetik naparra,
esan gehiago baina
batailoi bakarra;
tirorik egin gabe
baioneta kala,
laster izutzen dira
Kristinuak ala.

11
Jainkoak daki zenbat
urdai eta baba,
beste portziyotxo bat
arroza ere bada;
berentzako asmoan
eramana hara,
gu deskantsuan jaten
orain ari gera.

12
Bakallua eta illarra
eta barbantzua,
utzirikan juan ziran
beren arrantxua,
zergatik etzitzaien
eman deskantsua;
aientzako kaltea
gure probetxua.

13
Kantidadez zapata,
arropa ta zaldi,
pozik uzten zituzten
dan guztiak geldi;
arrapatzen zanari
Burua bi erdi,
zergatik egin zuten
hainbeste pikardi.

14
Andoaingo elizan
olioa ugari,
arin iriki diye
karlistak beltzari;
dan guztiak utzita
juan ziran itzuri,
bastimentua eraman
diote ontzari

15
Orra hamabost
bertso
aspaldiko partez,
aditzera eman det
noski orrenbestez:
aziyo bat polita
eman da nire ustez,
Gurutze Santuaren
obraz ta birtutez.